

SARRERA

Ander Granado, Lorea Reta, Assia Rebroub eta Rafaella Jimenez gara. Durangoko Fray Juan de Zumarraga 2. batxilergoko ikasleak. Startinnova plataformaren bitartez, gure egitasmoa, **Eskutik** elkartearen deitzen dena, aurkeztera gatoz.



Gaur egun, aniztasun funtzionala duten haurren inklusioa gizartearen erronka nagusietako bat da. Haur horiek eta haien familiek, maiz, hainbat oztopo eta desafio gainditu behar izaten dituzte eguneroko bizitzan. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu laguntza eta baliabide egokiak eskaintzea. Horren aurrean, **Eskutik Elkartekoek** “Haurren Aniztasun Funtzionalerako Inklusio Proiektua” martxan jarri dugu, helburu argi batekin: haur guztien eskubideak eta aukerak bermatzea, bakoitzaren beharretara egokitutako baliabide eta laguntza berritzaileekin.

Proiektu honek ez du bakarrik hezkuntza alorra hartzen; terapia-programak, teknologia berriak eta familiak laguntzeko ekintzak ere eskaintzen ditu. Horrez gain, sentsibilizazio kanpainak ere abiatzen ditugu, gizartearen inklusioa eta errespetua sustatzeko. Guztion elkarlana eta inplikazioa baliatuz, **gizarte inklusibo eta bidezkoago bat** eraikitzeko pausoak ematen ari gara, non haur guztiek beren gaitasunak garatzeko aukera izango duten eta benetako berdintasun aukera izango duten.

Proiektu hau ez da soilik laguntza praktiko bat, baizik eta konpromiso bat:

...Aniztasuna onartzen, etorkizuna eraikitzen.